Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Izaskun Jimeno Agirrebeitia

Bergara, Gipuzkoa (1949)



Aurkibidea

Biografia



San Antonio auzoan jaioa. Aita bizargina zen (donostiarra, Herrera auzokoa) eta ama Bergarakoa. Alaba bakarra da. Izaskunek Mariaren Lagundian ikasi zuen. Batxilergoa egin ondoren, Magisteritza egin zuen Gasteizen, bere kontura. Barriako udalekutan egon zen, begirale moduan, eta ondoren andereño moduan hasi zen Bergarako Koldo Eleizalde ikastolan, Komenio kalean. 1971n Aranzadi ikastola sortu zuten eta bertan ibili zen lanean erretiroa hartu artean.

Zintak

BER-357

- **Proiektua**: Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2021-03-29
- **Iraupena**: 105 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Ikastolan baino lehen, udalekuetan begirale

- **Erref**: BER-357/003
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:03:12. **Bukatu**: 00:04:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Lehenengo bulegari hasi zen. Don Serafin etxez etxe ibiltzen zen eta behin udalekuetara begirale joatea proposatu zion. Ikastolan hasi aurretik joan zen bi urtez udalekuetara.

2. Ikastola sortu zenean

- **Erref**: BER-357/004
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:04:22. **Bukatu**: 00:05:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Eskolaurrea zegoen euskaraz, baina gero akademian gazteleraz ikasi behar izaten zuten. Ikastola sortu zutenen izenak aipatzen ditu. Konbenio kaletik eta San Pedro kaletik sartzen ziren. 3-6 urteko umeak hartu zituzten.

3. Don Serafin Esnaolaz

- **Erref**: BER-357/005
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:05:46. **Bukatu**: 00:08:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Serafin Esnaola 1967 inguruan etorri zen Bergarara, Trintxerpetik. Desterratu egin zutela dio. Konbenio kaleko bulegoan egoten zen. Argazkiak ateratzen zituen eta fotokopiak egiten zituen. "Acción católica"ren lokala zegoen azpiko aldean eta bailarako ikastoletako bilerak han egiten zituzten.

4. Ikastolaren hasierako urteak

- **Erref**: BER-357/006
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:08:22. **Bukatu**: 00:09:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Militantziaz lan egiten zuten. Soldata bi mila eta bostehun pezetakoa zen; gutxi. Gurasoei dirua eta laguntza eskatzen zizkieten. Irteera Gorlara egiten zuten.

5. 1968an hasi zen ikastola martxan

- **Erref**: BER-357/007
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:09:46. **Bukatu**: 00:11:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Hasieran hiru irakasle ziren: Pilare Mujika, Edurne Arzelus eta Izaskun bera. Lehenengo mailako umeen matrikulak Urretxuko ikastolako kartilletan zeuden. 1968-1969 ikasturtean hasi zen ikastola.

6. Ikastolakoak eta beste bi eskola elkartu eta seminarixora

- **Erref**: BER-357/008
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:11:20. **Bukatu**: 00:13:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Ikastola hasi zenean, akademia "Colegio Santa Infancia" eta Kontxita Maiztegiren eskola ere bazeuden. Fraideak ume gabe geratzen ari ziren; seminarioa haziendaren esku ez geratzearren, elkartu egin ziren akademia, Kontxita Maiztegi eta ikastola.

7. Ikastolaren izena hasieran Koldo Eleizalde zen

- **Erref**: BER-357/009
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:13:24. **Bukatu**: 00:14:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Ikastolaren izena "Koldo Eleizalde" zen, baina ofizialki ez zieten onartu eta Telesforo Aranzadi ipini zuten.

8. 1971an ikastola seminarixora

- **Erref**: BER-357/012
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:16:56. **Bukatu**: 00:20:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
1971n seminarixora joan ziren. Lehenengo urteetako irakasleak aipatzen ditu. Berrogeita bi ume zituen gelan. Mariaren Lagundiak eskolaurrerik ez zeukanez, ume denak ikastolara joaten ziren.

9. Haurtzaindegi laboral moduan, diru-laguntzak lortzeko

- **Erref**: BER-357/013
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:20:36. **Bukatu**: 00:23:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Haurtzaindegian euskaraz egiten zuten. Handik ikastolara pasatzen ziren umeak. Dirua lortzeko, haurtzaindegi laboral moduan ipini zuten ofizialki, eta orduan lar arlotik lortzen zuten diru-laguntza.

10. Dominikoak ikastolan

- **Erref**: BER-357/014
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:23:16. **Bukatu**: 00:24:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Ehun umerekin hasi ziren. Dominikoek eramaten zutenez seminarixoa, haietako bat jarri behar izan zuten buru, Fernando Etxeberria. Bi dominiko lanean aritu ziren.

11. Ikastolako juntakideak gurasoak bakarrik

- **Erref**: BER-357/015
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:24:24. **Bukatu**: 00:25:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Bi mila eta bostehun pezetako soldata zeukaten. Markos Gabilondok ematen zien eskura. Politika kontuak sartu zirenean, erabaki zuten juntakideak gurasoak izatea.

12. Nesken eskola publikorik ez zegoen

- **Erref**: BER-357/017
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:26:39. **Bukatu**: 00:28:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Nesken eskola publikorik ez zegoen; Mariaren Lagundian lehenengo mailatik gora ematen zuten. Batzuk ikastolan hasi eta gero hara joaten ziren, baina gutxi.

13. Ikastolako hainbat irakasle eta zuzendari

- **Erref**: BER-357/018
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:28:22. **Bukatu**: 00:30:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Aita Zamora eta frai Jazinto izan ziren ikastolako zuzendari baita. Psikologoa ere izan zuten. Lehenengo irakasleak izendatzen ditu.

14. Udako ikastaroak irakasleentzat

- **Erref**: BER-357/019
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:30:07. **Bukatu**: 00:31:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileentzat zerbitzuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Uztailean ikastaroak egiten zituzten Loiolan eta Iruñean, eta Euskal Herri osoko jendea batzen zen. Debako andereño batzuekin harreman handia egin eta han egon zen urtebetez.

15. Txantxotesia, gerra aurreko andereñoa

- **Erref**: BER-357/020
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:31:07. **Bukatu**: 00:32:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Txantxotesia deitzen zioten gerra aurreko ikastolako irakasleari. Eskola publikoan erretiratu zen.

16. "Rosa Sensat" ikastetxe katalanekoekin ikastaroak

- **Erref**: BER-357/021
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:32:29. **Bukatu**: 00:33:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileentzat zerbitzuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Ikastaroetara "Rosa Sensat"eko irakasleak etortzen ziren erakustera, Bartzelonatik. Oñatibiak asmatutako dantza-jolasak ere ikasten zituzten. Pare bat urtez Bartzelonara joan ziren.

17. Euskaraz irakastea hasieran kostatu

- **Erref**: BER-357/022
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:33:37. **Bukatu**: 00:35:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Magisteritza erdaraz ikasita, euskaraz erakustea asko kostatu zitzaion. Durangoko irakasle batekin asko ikasi zuen. Matematika irakatsi izan du. Deban metodologia bat zeukaten eta matematika euskaraz ematen zuten.

18. Liburu eta kanta zaharrak hasieran ikastolan

- **Erref**: BER-357/023
- **Iraupena**: 0:00:49. **Hasi**: 00:35:40. **Bukatu**: 00:36:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Konbenio kalean zeudenean, liburu zaharrak zeuzkaten. Kantatu asko egiten zituzten; Pilarek erakusten zizkien.

19. Ikastolaren lehen urteetan, diru-batzerik ez

- **Erref**: BER-357/025
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:37:03. **Bukatu**: 00:39:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Konbenio kalean gurasoek kuota ordaintzen zuten. Dendariek lagundu egiten zieten, baina ez diruz. Aranzadi sortu zenean, diru batzeekin hasi ziren.

20. Ikastola diruz hornitzeko ekintzak

- **Erref**: BER-357/026
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:39:06. **Bukatu**: 00:41:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Hasieran Gabonetan eta Santa Ageda bezperan kantuz irteten ziren; gero dirua batzen ere bai. Zozketak egiten zituzten. Tabernak Bergarako jaietan zabaltzen zituzten, dirua lortzeko. Gurasoek eta irakasleek hartzen zuten ardura.

21. Haurren egunaren antolaketa

- **Erref**: BER-357/027
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:41:30. **Bukatu**: 00:43:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Haurren eguna antolatzen zuten. Lehenengo gurasoei galdetzen zieten umeak (dantzariak) hartzerik nahi zuten (etxean bazkaldu zezaten), eta beste eskola batzuetan ere galdetzen zen. Begiraleek elkarte gastronomikoetan bazkaltzen zuten. Azkenerako laga egin zioten antolatzeari.

22. Dantzako irakasleak ikastolan

- **Erref**: BER-357/028
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:43:16. **Bukatu**: 00:44:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Ikastolan Moises Azpiazu hasi zen dantzan erakusten, soltean. Gero Jabier Zurra eta Maite Barrena ere aritu ziren, taldeko dantzak ere erakutsiz. Ikastolan entseatzen zuten dantzari nagusiek ere.

23. Multikopista lapurtu zutenekoa

- **Erref**: BER-357/030
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:45:10. **Bukatu**: 00:46:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Norbaitek multikopista lapurtu zuen eta non zegoen jakin zutenean, ikastolako batzuk bila joan ziren. Koartelera joan ziren jakinaraztera, baina egurra hartuta itzuli ziren.

24. Gertaera politikoei lotutako ospakizunak ikastolan

- **Erref**: BER-357/031
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:46:39. **Bukatu**: 00:48:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:
Franco hil zenean, txanpanarekin ospatzen ibili ziren eta astebetez jai izan zuten. Handik bi urtera, ikurrina legeztatu zuten, eta udaletxean ipini zuten, Irazola zinegotziak eta beste norbaitek. Donostiara joan ziren ospatzera.

25. Estatu kolpe saiakera gertatu zenekoa

- **Erref**: BER-357/032
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:48:22. **Bukatu**: 00:51:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:
Estatu kolpe saiakera egin zutenean, Euskal Herrian Euskaraz taldean zebilen Izaskun. Ordukoa kontatzen du.

26. Lagun giroa ikastolan

- **Erref**: BER-357/033
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:51:35. **Bukatu**: 00:53:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Dena ospatzen zuten orduan ikastolan. Hasierako urteetan lagun giroa zeukatela dio. Anekdota bat kontatzen du.

27. Lehenengo Kilometroak Bergaran

- **Erref**: BER-357/034
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:53:19. **Bukatu**: 00:54:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
1991n Bergaran antolatutako lehenengo Kilometroak jaialdia egin zen. Kultura batzordean zegoen Izaskun. Mariaren Lagundia eta Aranzadi ikastolaren artean antolatu zituzten.

28. Osintxuko ikastola

- **Erref**: BER-357/035
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:54:17. **Bukatu**: 00:55:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
1970ean Osintxuko ikastola zabaldu zuten. Ikasleak gero lehen hezkuntza egitera Bergarara joaten ziren. Irakasleak aipatzen ditu. Hasieran beraien kontura ibiltzen ziren.

29. Udalekuak euskara ondo ikasteko

- **Erref**: BER-357/036
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:55:57. **Bukatu**: 00:57:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Euskararekin zailtasunak zituzten umeekin Oñatiko baserri batera joaten ziren uztailean, egun batzuk pasatzera.

30. Bergarako ikastetxeetako ereduak

- **Erref**: BER-357/038
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:59:06. **Bukatu**: 01:00:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Hiru eredu sortu ziren eta ikastolan D eredua izan dute beti. Mariaren Lagundian, A eta B ereduak zeuzkaten eta ondoren B eta D. Eskola publikoan, lehenengo eskolaurrean hasi ziren euskaraz; hasieran D eredua ematera derrigortu zituzten. Arazoak sortu ziren.

31. Eskoletan euskaraz erakusten

- **Erref**: BER-357/039
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 01:00:55. **Bukatu**: 01:04:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
70. hamarkadan Mariaren Lagundira eta eskola publikora hainbat lagun joaten ziren euskaraz erakustera. Miren Goñi zen haietako bat; ikastolak antolatutako ikastaroetara askotan joaten zen. Arrasaten "Murgiltzen" eredua sortu zuten.

32. Gau-eskolen hasiera

- **Erref**: BER-357/040
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 01:04:15. **Bukatu**: 01:05:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
1974an kultur hamabostaldia egin zuten eta gero gau-eskolak hasi ziren. Arrasaten AEK zegoen eta Fermin Korkostegik bultzatuta, alfabetatze talde bat hasi zen ikastolan. Josu Oregik elementalean ematen zuen.

33. UNEDeko euskara departamendua

- **Erref**: BER-357/041
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 01:05:58. **Bukatu**: 01:09:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:
D ereduan irakasle izan ahal izateko, titulua behar izaten zuten. Arrasateko unibertsitatean egiten zituzten ikastaroak. B ereduko ikastaroetara ere joan zen. UNEDeko euskara departamenduan lan handia egin zuten; irakaslego ona zegoen. Orduan ez zegoen euskaraz unibertsitaterik. Juan Mari Elorza hasi zen institutuan euskarazko klaseak ematen.

34. Katekesia eta dotrina euskaraz

- **Erref**: BER-357/042
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 01:09:09. **Bukatu**: 01:11:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:
Dotrina erakusten Don Serafin ibiltzen zen eta diapositibekin irakasten zien. Erlijioa Maria Biktoriak ematen zuen gero. Don Pedro Santa Marinan hasi zen katekesia euskaraz ematen, Miren Goñi eta Pilare Mujikaren laguntzaz.

35. Euskarazko kontzertuak "juventudes parroquiles"en

- **Erref**: BER-357/043
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 01:11:24. **Bukatu**: 01:14:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Joxu Oregi eta Txomin Amasorrainek euskazko eskolak ematen zituzten elementalean. "Juventudes parroquiales" Don Serafinek antolatu zuen. Berak parte hartu zuen. Benito Lertsundi eta Gorka Knorr hango lokalean ikusi zituen.

36. Bergarako musika taldeak

- **Erref**: BER-357/046

- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 01:17:09. **Bukatu**: 01:19:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Urretxindorrak, Ameslariak eta Alai taldea ere bazeuden. San Pedro elizan abesbatza bat zegoen, euskaraz abesten zuena. Iñaki Arriaranek berak bakarrik abesten zuen. Kultura aldetik mugimendua egon izan dela dio.

37. Mugimendu politiko handia Bergaran

- **Erref**: BER-357/048
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 01:20:54. **Bukatu**: 01:23:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:
Mugimendu politiko handia zegoen Bergaran 70. hamarkadan. Manifestazioak eta protestak asko izaten ziren. Aberri Egunean poliziak agertzen ziren eta ezkutuan egoten ziren asko.

38. Euskal Herrian Euskaraz taldea Bergaran

- **Erref**: BER-357/050
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 01:24:03. **Bukatu**: 01:25:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:
Euskal Herrian Euskaraz taldean ibilitakoak izendatzen ditu. 1979an sortu zuten. Ez zegoen euskara elkarterik orduan. Euskarari garrantzia ematea zen helburua. Herri askotan sortu zen.

39. Ikastolak sortutako kultur ekimenak

- **Erref**: BER-357/051
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 01:25:52. **Bukatu**: 01:28:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Aisia » Kultura

Laburpena:
Kulturari loturiko gehiena ikastolak sortzen zuen. Martitzen karnabala ospatzen hasi zirenekoa kontatzen du. San Sebastian bezperan eta San Martinetan danborrada jotzen hasi ziren. Santa Ageda eskea eta Gabon eskea ere egiten hasi ziren.

40. Bertsolaritza ikastolan

- **Erref**: BER-357/053
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 01:29:24. **Bukatu**: 01:31:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Ikastolan bertsolaritza erakusten hasi ziren. Ikastolen elkarteak liburuxka bat atera zuen eta harekin hasi ziren. Bertso eskola ere martxan ipini zuten baina kirolera joatearren, pixkanaka galdu egin zen. Ainhoa Agirreazaldegi aipatzen du.

41. Serfin Esnaola eragile

- **Erref**: BER-357/054
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 01:31:33. **Bukatu**: 01:34:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Kulturgintzan ezagunak ziren herrikideak aipatzen ditu. Serafin Esnaolak marrazki lehiaketa antolatzen zuen Gabonetarako, eskola guztietarako. Jende askorekin zeukan harreman handia Serafinek eta gauza asko bultzatu zituen.

42. Ikastolako lan-baldintzak negoziatzen

- **Erref**: BER-357/055
- **Iraupena**: 0:03:33. **Hasi**: 01:34:35. **Bukatu**: 01:38:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Ikastoletan ez zegoen lan-hitzarmenik eta gurasoekin adosten zituzten gauzak. Irakaskuntzako sindikatuak sortu zirenetik, 1977 ingurutik, komite guztietan egon zela dio. Lan-orduetatik kanpo egiten zituzten bilerak. Hasieran gurasoekin zuzenean negoziatzen zuten; gero, lan-hitzarmenak egin ziren ezkero, errazagoa zen.

43. Lehenengo lan-hitzarmena ikastoletarako

- **Erref**: BER-357/056
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 01:38:08. **Bukatu**: 01:40:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Lehenengo lan-hitzarmena jarri zutenean, 1.393 ordu sartzen zituzten eta hitzarmenak asko jaistea eskatzen zuen. Militantzian eragina izan zuen. Ikastola sortu egin behar izan zuten, ez zen lan bat bakarrik.

44. Ikastolako hasieretako irakasleen kotizazioa

- **Erref**: BER-357/057
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 01:40:12. **Bukatu**: 01:42:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Ikastola hasi zenean, jende bila ibiltzen ziren. Titulu gabeko irakasle asko zegoen hasieran. Urte haietako kotizazioa kontatzea lortu zuten duela urte batzuk. Hasieran ez zeukaten gizarte segurantzarik ere.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-11-26

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com